Bizipenak

Adoptatua

Kolonbian jaioa, 2003an
Bizkaian adoptatua, 2007an

Iragana beti daukagu hortxe, buruan sartuta, kax-kax kolpetxoak joz edo egunerokoan gurekin bidea eginez, bizi izandako une batzuetara itzultzeko gogoa piztuz, une horiek onak zein txarrak izan.

Kontakizun honek neure istorioa du oinarri –izenak asmatuak dira–, eta, bertan, orobat azpimarratu nahi dut nola islatzen diren norberaren bizipenak harreman sozialetan.

Darren dut izena, eta Kolonbiatik adoptatutako mutil bat naiz. Ama euskaldun batek adoptatu ninduen, June Errenteria bilbotarrak, nik lau urte besterik ez nuela. June hasieratik jabetu zen ez nintzela erraz erlazionatzen bera edo senideak ez ziren beste pertsona batzuekin. Umezurztegian ezagutu ninduen egunean bertan igarri zion. Hantxe aurkitu ninduen, sehaska batean, ezin geldi egon, ni bezalaxe adopzio-familia baten beharrean zeuden beste ume batzuen artean.

Juneri gauza batek eman zion atentzioa batez ere: gela hartako haur askok elkarrekin sozializatzen zuten, elkarri jostailuak utziz-eta, baina beste batzuk hartu-eman horietatik baztertuta geratzen ginen. Ni neu nintzen horietako bat: izandako bizipenengatik, isilik geratzen nintzen, besterekin harremanik izan gabe. Gure zaintzaile aritzen ziren mojak ere uste berekoak ziren.

Hala ere, jakinaren gainean egon arren nolako erronkak ekarriko zizkion ni hazteak, Junek uste sendoz segitu zuen adopzio-prozesuarekin. Izan ere, adopzio-ama izateko motibazioa hauxe zuen: familia bat, egonkortasuna

eta heziketa bat eskaini nahi zizkiola umeren bati, maiz zergatik jakin gabe ere babesik gabe geratuak ziren ume haietako bati.

Eta hala iritsi nintzen etxera: lau urte beteta, eta ordura arte ia inolako estimulaziorik jaso gabe.

Hurrengo urteak oso gogorrak izan ziren niretzat; batez ere, ikasketetan eta arlo sozialean. Hiztegi askoz ere murritzagoa neukan Lehen Hezkuntzako beste haurrek baino, eta Bigarren Hezkuntzan ere izan nituen halako zailtasunak. Etxean, egia da, egoera samurragoa nuen: amaren maitasuna neukan; besarkada bakoitzean erakusten zidan hori. Nik, ordea, ez nizkion beti kontatzen eskolan gertatzen zitzaizkidan gauza guztiak, eta horrek asko kezkatzen zuen. Eskola-urte haietan, nolabait ere, harreman sozialen inguruko pentsamendu negatiboak piztu zitzaizkidan.

Gaur egun, oraindik ere, lehen urteetan izan nituen bizipen guztiek –umezurztegiak, estimulazio murritzak, zentroko baliabide eskasek eta txiki-txikia nintzeneko bizipenek– eragina dute besterekin erlazionatzeko dudan moduan.

Beti ordu berean jaikitzen naiz: goizeko seietan. Askori inbidia piztuko liekeen optimismo-kutsu batez prestatzen dut gosaria. Zortzietan hasten dira eskolak, baina goiz esnatzea gustatzen zait, egunari aurre egin aurretik gogoa ordenatzeko eta antolatu beharrekoak antolatzeko. Erosoago sentitzen naiz horrela.

Eguneroko zereginetan murgilduta nabilenean, ondo sentitzen naiz neure buruarekin: gosaria prestatu, harrikoa egin, ikastetxerako motxila prestatu. Garraio publikokoan egiten ditudan joan-etorriek ere badute zerbait berezia niretzat. Ez dut entzungailurik erabiltzen, baina gozatu egiten dut hala ere, inguruan dudan guztiari begira.

Ikasgelara sartu, eta nire bi eskola-kideak agurtzen ditut. Oso eroso egoten naiz haiekin, etxeko lasaitasun bera transmititzen didate eta. Esan liteke halako zirraraldi emozional batek hartzen nauela. Pozik nago daukadan konpainiarekin, eta pozik joaten naiz eskolara.

Galdera bat

Eskolak bukatzean txirrinak jotzen duenean, beti jira-biran dabilkidan galdera etortzen zait burura berriro: zer nahiago dut, bakarrik joan autobus-geltokira, edo norbaitekin?

Benetan erabaki zaila da hori niretzat, izugarri gozatzen baitut gauzak neure kasa eginez, neure buruarekin egonez. Norbaitekin joatea bururatzen zaidanean, berriz –dela pertsona bakarrarekin, dela taldean–, zerbait aldatzen zait barruan. Egun osoan ni ohartu gabe gizenduz-gizenduz joan den pentsamendu bat pizten zait. Eta, orduan, gorputza alertan jartzen zait une batez.

Galderari azkar erantzun behar izatera, edonork esango luke geltokira bakarrik joatea dudala aukerarik onena. Baina xehetasun bati ezin diot ez ikusi egin: badudala beharra besteekin hartu-emanean aritzeko ere. Egia da, era berean, beti iruditzen zaidala ezen, ondo sentituko banaiz, etengabe egon behar dudala norbaitekin hizketan, hari suspergarriak eta positiboak suertatzen zaizkion gaiei buruz.

Orduan, jakinik zer sentitzen dudan harreman sozialen inguruan, zergatik kostatzen zait hainbeste erabaki hori hartzea?

Terapia-lan sakon bati eta nire amaren inplikazio etengabeari esker, asko hobetzea lortu dut, babes eta orientazio profesionalaren laguntzaz. Gaur egun ez daukat zailtasun handirik nire kideekin hitz egiteko, ezta ezezagunekin ere. Baina, hala ere, haietakoren batekin etxera joateko aukera suertatzen zaidanean, oraindik ere hobesten dut bakarrik joatea, neure munduan babestuta.

Terapia-lan sakon bati eta nire amaren inplikazio etengabeari esker, asko hobetzea lortu dut, babes eta orientazio profesionalaren laguntzaz

Burbuila moduko bat sortuz joan naiz urteetan, ziurgabetasuna eragiten didaten gauzetatik babesten nauena. Han seguru sentitzen naiz: han ez dago elkarrizketa bati eusteko presiorik, ez eta behar bezala ez egokitzeko beldurrik ere.

Edo beharbada ez da zehazki burbuila bat.

Agian, zera besterik ez da: kanpoko mundua ulergaitzegia zitzaidan bakoitzean itzulekutzat hartzen ikasi nuen toki bat.

Eta, nahiz eta gaur egun jada ez naizen umezurztegiko mutiko hura, haren parte bat neurekin dago oraindik: presente dago duda bakoitzean, erabaki bakoitzean, eta bidea bakarrik egin edo norbaitekin egin hautatu behar dudan bakoitzean.

Agian, benetako galdera ez da zergatik nahiago dudan bakarrik egon batzuetan, baizik zenbateraino begiratzen diodan oraindik munduari norberaren konpainian soilik seguru sentitzen ikasi zuen mutiko haren begiekin.